



Usurbilgo Udala

2024/05/28

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2024KO MAIATZAREN 28AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa eta Iratxe Begiristain Otegi.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez dira bertaratu: Xabat Beloki Seguroola eta Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2024KO MAIATZAREN 14KO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2024ko maiatzaren 14ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- SANTUENEA 20 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILUARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0030).

Esp. Zenbakia: 2022-OHAN-0030
HZ.04/2022-0462

SANTUENEA 20 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20306163) ordezkartzan diharduen Jose María Lluch Lafuente arkitektoak, Santuenea 20 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko urtarrilaren 19an, zera erabaki zuen: SANTUENEA 20 ETXEKO JABEKIDEEI, Santuenea 20 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 94.791,99 €
Obra amaierako ziurtagiria:	Guztira: 92.971,89 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 800 €
	Fidantza (%120): 960 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, SANTUENEA 20 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20306163) ordezkartzan diharduen Jose María Lluch Lafuente arkitektoak, obra amaierako dokumentazioa



Usurbilgo Udala

2024/05/28

aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eskatu du. Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantzarik ez da jarri.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Santuenea 20 etxean jarritako igogailuari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzari jakinaraztea obra amaierako likidazioa 92.971,89 €-koa izan dela.

HIRUGARRENA: Erabakia jakinaraztea interesatuari eta Kontuhartzaileari ematea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45ak direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.